

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2024ko maiatzaren 13a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita laugarren urtean, maiatzaren hamahiruan, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2024ko maiatzaren 03an afixatua izan zen eta 2024ko maiatzaren 03an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	12	
Bozkatzailerak	15	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Pierre, *Betti*, jauna CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLCOMENDY Betti jauna

Ahalordea(k): BIBES Jean Paul jaunak ahalordea emana zakon DUPUY Maddalen andereari, DEGUIRAUD Héléne andereak ARANGOITS Isabelle andereari, ITHURBURUA Daniel jaunak CURUTCHARRY Antton jaunari.

Bilkurara ezin etorria jakinarazia zuten: BIBES Jean Paul jauna, DEGUIRAUD anderea, ITJURBURUA jauna

Bilkurako idazkaria izendatu da: MOUSQUES Bernadette anderea

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Sasoiko lanpostuen sortzea kanpalekuko eta zerbitzu teknikoetako
- Eskolen Kutzako aurrekontua gelditzea 2025/01/01etik goiti – aktibitatea eta eskumena herriari eskualdatuko da
- Herriak kantinearen prezioan ordaintzen duen parte emendatuko da
- Irube baserri-bidearen parte baten uzteko eta besterentzeko galdearen onartzea
- Panneau Pocket aplikazioari kidezea
- Euskal Elkargoaren 2024-2027ko euskarari buruzko hobekuntza kontratuaren onartzea
- I-ener Teilatuak enpresarekin hitzarmena izenpetzea VVFan panel fotovoltaikoak ezartzeko
- Hondakin abandonatu kaltegarrien kontrako borrokari buruzko hitzarmenaren izenpetzea Euskal Hirigune Elkargoarekin
- Aurrekontuaren aldaketa erabakia (aurreikusi den hautetsien formakuntza gastuen zenbatekoa (DIF) – kredituen biramendua
- 1. mailako teknikari laguntzaile nagusi postu baten sortzea 2024/07/01ean
- Lanpostuen taularen aldatzea 2023ko abenduaren 30eko legearen arabera
- hTHP Baxenabarreko Antolaketa eta Garapen Iraunkorraren Proiektuari buruzko eztabaida eta onartzea **GIBELATUA**
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2024ko apirilaren 9ko bilkuraren bilduma onartu du.

1-2024-30. DELIBEROA – SASOIKO LANPOSTUEN SORTZEA – 4.2 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio sasoiko lanpostu batzuen sortzea herri kanpalekuko eta errepideen zerbitzuko, udan lan gehiago baita.

- **Herri kanpalekuari doakionaz**

Sasoiko 4 lanpostu sortzea proposatu du denbora ez osoz, eta asteko lan denbora honela finkatuko litzateke:

Sasoiko lanpostu bat **2024/07/01etik 2024/07/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 16 oren

sasoiko lanpostu bat **2024/07/15etik 2024/07/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 20 oren

sasoiko lanpostu bat **2024/08/01etik 2024/08/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 16 oren

sasoiko lanpostu bat **2024/08/03tik 2024/08/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 16 oren

- **Errepideen zerbitzuari doakionaz**

Sasoiko 4 lanpostu sortzea proposatu du denbora osoz, eta asteko lan denbora honela finkatuko litzateke:

Sasoiko lanpostu bat **2024/07/01etik 2024/07/16ra**, asteko lanaldia bana besteko: 36 oren

Sasoiko lanpostu bat **2024/07/17tik 2024/07/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 36 oren

Sasoiko lanpostu bat **2024/08/01etik 2024/08/16ra**, asteko lanaldia bana besteko: 36 oren

Sasoiko lanpostu bat **2024/08/19tik 2024/08/30era**, asteko lanaldia bana besteko: 36 oren

Lansariak dagokion graduko 1. mailaren arabera finkatuko dira (administrazio laguntzailea eta teknika laguntzailea).

Tituludun ez diren langileek beteko dituzte postuak Lurraldeko Funtzio Publikoari buruzko 1984ko urtarrilaren 26ko lege aldatuaren 3-2. Artikuluko xedapenen arabera; honi esker tituludun ez diren langileak har daitezke sasoiko lan emendatzeari buru egiteko, urtean 6 hilabetez gehienez.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ERABAKI du

- Herri kanpalekurako sasoiko 4 lanpostu sortzea proposatu du denbora ez osoz, eta asteko lan denbora honela finkatuko da:

sasoiko lanpostu bat **2024/07/01etik 2024/07/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 16 oren

sasoiko lanpostu bat **2024/07/15etik 2024/07/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 20 oren

sasoiko lanpostu bat **2024/08/01etik 2024/08/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 16 oren

sasoiko lanpostu bat **2024/08/03tik 2024/08/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 16 oren

- **Errepide zerbitzua**

sasoiko 4 lanpostu sortzea proposatu du denbora osoz, eta asteko lan denbora honela finkatuko da:

sasoiko lanpostu bat **2024/07/01etik 2024/07/16ra**, asteko lanaldia bana besteko: 36 oren

sasoiko lanpostu bat **2024/07/17tik 2024/07/31ra**, asteko lanaldia bana besteko: 36 oren

sasoiko lanpostu bat **2024/08/01etik 2024/08/16ra**, asteko lanaldia bana besteko: 36 oren

sasoiko lanpostu bat **2024/08/19tik 2024/08/30era**, asteko lanaldia bana besteko: 36 oren

BAIMENDU du jaun auzapeza dagokien lan-kontratuen izenpetzera.

ZEHAZTU du lanpostu horietarako lansaria dagokien graduko 1. mailaren arabera finkatuko direla (administrazio laguntzailea eta teknika laguntzailea).

kredituak aurreikusiak izanen direla kontu-aldian.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

2-2024-21. DELIBEROA-ESKOLEN KUTXAKO AURREKONTUA GELDITZEA – AKTIBITATEA ETA ESKUMENA HERRIARI ESKUALDATUKO DIRA-7.10 NOMENKLATURA

Kontseiluak,

Jaun auzapezaren azalpena entzun ondoan,

Ikusirik Hezkuntza Kodea eta bereziki L212-10 artikulua;

Ikusirik Lurralde Kolektibitateetako Kode Orokorra, eta bereziki L1321-1 artikulua;

Ikusirik 2001eko uztailaren 17ko 2001-624 legea, eta bereziki 2. artikulua;

Ikusirik 2024ko apirilaren 8ko Eskolen Kutxako Administrazio Kontseiluaren erabakia Eskolen Kutxaren gelditzeko;

Ikusirik Eskolen Kutxaren desegiteari buruzko 2002ko otsailaren 14ko ministerioarteko zirkularra;

Eskolen Kutxaren eginkizuna aldatu dela kontsideratuz eta Herriko Etxeak bakarrik duela honen funtzionamendu ona bermatzen,

2024ko maiatzaren 13ko bilduma

Funtzionalki koherenteagoa izateko eta administratiboki sinpleagoa, agertu da hobe zela Eskolen Kutxa gelditzea eta honen aktibitateak eta eskumenak Baigorriko Herriko Etxeari eskualdatzea; honek eskolako kontularitza bermatuko du kontularitza analitikoa plantan ezarriz 2025eko urtarrilaren 1etik goiti.

Kontuan harturik irabazirik edo gasturik gabeko 3 urteko denboraldiaren ondotik Herriko Kontseiluak Eskolen Kutxa desegiten ahalko duela.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- **ONARTU du** 2025eko urtarrilaren 1etik goiti Eskolen Kutxaren gelditzea operazio oro geldituz: aurrekontu, kontularitza edo diruzaintza operazioak.
- **ONARTU du** Eskolen Kutxaren aktibitateak eta eskumenak eskualdatzea 2025eko urtarrilaren 1etik goiti.
- **OROITARAZI du** Eskolen Kutxa desegiten ahalko dela Herriko Kontseiluaren erabaki baten bidez, honek ez baldin badu hemendik 3 urtera irabazi edo gastu operaziorik egiten.
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari aktibitate eta eskumen eskualdaketa horren egiteko beharrezkoak diren agiriak egiteko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

3- 2024-32 DELIBEROA - HERRIAK KANTINAREN PREZIOAN ORDAINTZEN DUEN PARTEAREN EMENDIOA – BAIGORRIKO FAMILIENTZAT-7.10 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak esplikatu du kantinaren prezioan herriak ordaintzen duen parte emendatzea erabaki duela Baigorriko familiendako.

Emendio hori 0.25 €-ko litzateke bazkariko Donosteiko (eskola eta kolegioa) eta Ikastolako.

0.75 €-koa litzateke bazkariko Pujo kolegio publikoko haurrendako

Eta MEEK ikastolako haurrendako.

Behin-behineko emendio hori indarrean sartuko da **2024ko maiatzetik 2025eko uztailera**.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU** ditu emendio hauek:
0,25 € bazkari bakoitz Donosteiko (eskola eta kolegioa) eta Ikastolako
0.75 €-koa bazkari bakoitz Pujo kolegio publikoko eta MEEK ikastolako haurrendako
- **ARDURA** eman dio jaun auzapezari urrats guzien betetzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

4-2024-33 DELIBEROA – PANNEAU POCKET APLIKAZIOARI KIDETZEA – 7.10 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Panneau Pocket enpresan harpidetza hartzekoa duela. Jaun auzapezak esplikatu du smartphonetarako argibide eta abisu aplikazio horrek berrien jakinarazpenak igortzen dizkietela herritarrei denbora errealean. 2 urterako harpidetzarako aurrekontua 360 €-koa (BEZa barne) dela erran du.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ERABAKI du aplikazioari harpidetzea 2 urterako, **360 € (BEZa barne) kostako du**

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

5- 2024-34 DELIBEROA - EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN EUSKARARI BURUZKO HOBEEKUNTZA KONTRATUAREN ONARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari esplikatu dio Euskal Hirigune Elkargoak herriei laguntza proposatu diela euskara emeki-emeki beren zerbitzuetan sartzeko.

Helburua da agenteen euskarazko gaitasuna garatzea formakuntzaren bidez, euskara zerbitzuetako lan euskarrietan integratzea...

Horretarako, beharrezkoa da jaun auzapezak irakurri duen hitzarmen baten izenpetzea. Zenbait urtetarako den formakuntza plan bat plantan ezarriko da eta 4 000 €-ko urteko aurrekontua ezarriko da euskarrien itzulpena eginarazteko.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ERABAKI du** herria Euskal Hirigune Elkargoaren euskarari buruzko hobekuntza kontratuan sartuko dela
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari hobekuntza kontratua izenpetzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

6-2024-35. DELIBEROA – I-ENER TEILATUAK ENPRESAREKIN HITZARMENA IZENPETZEA VVFAN PANEL FOTOVOLTAIKOAK EZARTZEKO – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak kontseilukideei jakinarazi die herriak I-ENER TEILATUAK sozietateari VVFeko teilatua esku utzi diola eguzkiaren erradiazio-energiari esker elektrizitatea ekoitziko duten ekipamendu fotovoltaikoak instalatzeko. Azalera 180 m²-koa da nonbait han.

Jaun auzapezak irakurri du I-ENER TEILATUAK sozietatearekin egiteko den hitzarmen proiektua eta zehaztu du hitzarmenak 25 urte iraunen duela.

Teilatuaren okupatzeko zerga euro sinbolikoan finkatu da urtean hitzarmenak iraunen duen denbora guzira.

Herriko Kontseiluak auzapezaren azalpena entzun ondoan eta deliberatu ondoan:

- **ONARTU du**, I-ENER TEILATUAK enpresaren faboretan, atxikirik den eskubide errealak osatzen dituzten eremu publikoa aldi baterako okupatzeko hitzarmenaren baldintzak,

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

7- 2024-36 DELIBEROA - HONDAKIN ABANDONATU KALTEGARRIEN KONTRAKO BORROKARI BURUZKO HITZARMENAREN IZENPETZEA EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREKIN – 9.1 NOMENKLATURA

Ekoizleen erantzukizun zabalduaren aplikatzeko, ekoizleek, inportatzaileek edo estalkietan salduak diren produktuak lehenbiziko aldikotz merkaturatzearen arduradunek etxeko estalki-hondakinen prebentzioari eta kudeaketari dagozkien beren betebeharrak eskualdatu ditzakete horretarako onetsia den eko-erakunde bati. Honek bere kideen ekarpenak eskuratzen ditu, eta horri esker estalki-hondakin abandonatuak garbitzen dituzten lurralde elkargoak finantzatzen ditu.

2022ko buruilaren 30eko erabakiaren bidez, Citeoren onarpen baldintzen bilduma aldatu da, bereziki eremu publikoan abandonatu hondakinen garbitzeko eta murrizteko kostuen ordainketa arautzeko (baldintzen bildumako IV.7 artikulua). Ordaindu beharreko kostuak sozietate onetsiaren onespeneraren arabera produktuetatik heldu diren hondakin abandonatu kaltegarriei dagozkie bakarrik. Abandonatu hondakinen zikintegi ilegalak garbitzeko kostuaren ordainketa -erran nahi baita hondakin metak- ez da kostuaren berreskuratzen menpe.

Xede horretan, eta lurralde elkargoetako ordezkariekin hitzarturik, Ekoizleen Erantzukizun Zabalduen adarraren batzordeak etxeko estalkien formakuntzan ordeztu gisa, Citeók ereduazko hitzarmen bat apailatu du: hondakin abandonatu kaltegarrien kontrako borroka sostengatzeko hitzarmena, hondakinen garbiketaren ardura duten eta beren zerga sistema duten herri eta herri multzo guzietan ("beste pertsona publikoengandik bereizteko – Baldintzen Bildumako V.1.g artikuluko b paragrafoa) proposatua.

*

Elkargoak, ordezkatzeko duen herri multzoaren ekintza baten kariatara, hondakin abandonatuen garbiketa antolatzen du baita ere informazio, komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak etxeko estalki-hondakinak ez ingurumenean botatzeko.

Euskal Hirigune Elkargoak Citeók proposatu hondakin abandonatu kaltegarrien kontrako borroka sostengatzeko hitzarmenean duen interesa kontuan harturik,

2024ko maiatzaren 13ko bilduma

proposatu zaio auzapezari multzokatze hitzarmena izenpetzea Euskal Hirigune Elkargoarekin Citéok hondakin abandonatuen kontrako borrokan proposatu laguntzaren kariatara.

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

Kontuan harturik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, bereziki herriarteko lankidetzari buruzko 5221-1 artikulua, Ikusirik Ingurumenaren Kodea, bereziki L.541-10 eta R.543- 53-R.543-56 artikulua,

Ikusirik 2017ko maiatzaren 5eko erabakia, eko-erakunde baten onespinari buruzkoa, zeinak azken hartzaileak familiak diren estalki-hondakinen ardura hartzea helburu baitu Ingurumen Kodeko R. 543-53-R.543-65 artikuluek aurreikusi baldintzetan,

Ikusirik 2022ko irailaren 30eko erabakia, 2016ko azaroaren 26ko erabaki aldatua aldatzen duena, onepen prozedurari buruzkoa eta etxeko estalkien saileko eko-erakundeen baldintzen bildumari buruzkoa,

Ikusirik 2022ko abenduaren 21eko erabakia, 2017ko maiatzaren 5eko erabakia aldatzen duena, eko-erakunde baten onespinari buruzkoa, zeinak azken hartzaileak familiak diren estalki-hondakinen ardura hartzea helburu baitu Ingurumen Kodeko R. 543-53-R.543-65 artikuluek aurreikusi baldintzetan,

- **ONARTU DU** multzokatze hitzarmena izenpetzea Euskal Hirigune Elkargoarekin Citéok hondakin abandonatuen kontrako borrokan proposatu laguntzaren kariatara.
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari multzokatze hitzarmena izenpetzeko Euskal Hirigune Elkargoarekin abandonatu hondakinen kontrako borrokarako Citéok proposatu laguntzaren kariatara 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra (hitzarmena adierazi gabe luzatzen ahalko da 2028ra arte).

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /
-

8- 2024-37 DELIBEROA – 1. ALDAKETA ERABAKIA – 7.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak esplikatu du aurrekontu kontrola izan denean jaun suprefeta ohartu dela huts bat bazela aurrekontuko ordena operazioetan (2024ko apirilaren 30eko gutuna). Beraz, jaun auzapezak proposatu du aldaketak egitea jatorrizko aurrekontuan eta kreditu gehigarriak bozkatzea:

INBESTIMENDUA

GASTUAK	Zenbatekoa	IRABAZIAK	Zenbatekoa
168758	6 538.62	021	36 838.62
204182-040	-181 057.84	168758-040	-181 057.84
204182-041	256 207.25	168758-041	256 207.25
2131-op120,	9 000.00		
2131-op196	6 000.00		
2138-op120	8 000.00		
2152-op 202 (plakak, karriketako panelak)	1 300.00		
2184-op 120	5 000.00		
2188-op120	7 000.00		
2188-op175	- 6 000.00		
	111 988.03		111 988.03

2024ko maiatzaren 13ko bilduma

FUNTZIONAMENDUA

GASTUAK	Zenbatekoa	IRABAZIAK	Zenbatekoa
023	36 838.62		
615221	- 37 462.62		
6618	624.00		
	0.00		0.00
GASTUAK OROTARA	111 988.03	IRABAZIAK OROTARA	111 988.03

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

9- 2024-38 DELIBEROA – 2. ALDAKETA ERABAKIA – 7.1 NOMENKLATURA

LKKOko L2123-12 artikulua arabera. Jaun auzapezak proposatu aurrekontua aldatzea hautetsien formakuntza eskubidea (DIF) aurreikusteko.

Jaun auzapezak oroitarazi du formakuntza gastu horiek elkargoko hautetsiei urtero ematen zaien ordainsariaren osoaren % 20ra mugatuak direla.

Formakuntza aurrekontua ordainsarien % 2 eta % 20ren artean izan behar da. Jaun auzapezak proposatu du 65315 kontuan ezarria den aurrekontua 1 300 €-tan finkatzea.

Gainera, jaun auzapezak proposatu du 197 operazioko aurrekontua honela aldatzea (kreditu gehigarriak aurreikusiz):

INBESTIMENDUA

GASTUAK	Zenbatekoa	IRABAZIAK	Zenbatekoa
2111-197	1 300.00	021	1 300.00
	1 300.00		

FUNTZIONAMENDUA

GASTUAK	Zenbatekoa	IRABAZIAK	Zenbatekoa
023	1 300.00		
615221	- 2 600.00		
65315- Formakuntza	1 300.00		
	1 300.00		1 300.00

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

10- 2024-39 DELIBEROA – EGINKIZUN ANITZEKO TEKNIKARI POSTU BATEN SORTZEA – 4.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio denbora osoko lanpostu baten sortzea eginkizun anitzeko teknikari baten hartzeko.

Lanpostu hori C sailekoa da.

Lanpostuen taula honelakoa izanen da:

Lanpostua	Dagokion maila	Hierarkia saila	Kopurua	Asteko lan denbora bana besteko	Kontratatzearen oinarria enplegatua kontratupekoa baldin bada
Eginkizun anitzeko teknikaria	Teknika laguntzailea 2. mailako teknikari laguntzaile nagusia 1. mailako teknikari laguntzaile nagusia	C	1	Denbora osoa	Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L. 332-8 2 artikulua

Lanpostu hau betetzen ahalko da:

- funtzionario bat hartuz Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikuluan finkatu printzipio orokorra aplikatuz zeinaren arabera, baimen berezia ukanez salbu, departamenduen, herriko etxeen eta haien administrazio-erakunde publikoen lanpostu zibil iraunkorrak funtzionarioek baitituzte betetzen,
- baimen berezi baten bidez, kontratupeko langile bat hartuz Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2 artikuluko xedapenak aplikatuz. Hauek kontratupeko langileak hartzeko parada ematen dute lanpostu iraunkorretarako funtzio motek edo zerbitzuaren beharrek justifikatzen dutelarik eta ez baldin bada funtzionariorik hartu ahal izan edo mugikortasunaren kariatara edo konkurtsoetako saridunen artean.

Lan kontratuak hiru urterako luzatzen dira gehienez eta kontratua berritu daiteke sei urterako gehienez. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen baldin bada, erabaki berezi baten bidez egiten da mugarik gabeko eperako.

Kontratupeko langile bat hartzen balitz, lanpostua 367 eta 486 arteko indize gordinari dagokion ordainsaria eman ahal izanen zaio.

Lansariaren barne izanen dira 2021/02/26an Herriko Kontseiluak teknika-laguntzaileen lan alorrari doakien funtzionarioentzat finkatu funtzioei dagozkien lan alorrerako aurreikusi primak eta ordainsariak.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ERABAKI du - 2024ko uztailaren 1etik goiti denbora osoko lanpostu iraunkor baten sortzea eginkizun anitzeko teknikari baten hartzeko.

- lanpostu hori betetzen ahalko dela funtzionario edo kontratupeko langile bat hartuz,

- kontratupeko langile bat hartzen balitz, lanposturako 367 eta 486 arteko indize gordinari dagokion ordainsaria emanen zaiola.

BAIMENA eman dio jaun auzapezari atxikirik den lan kontratua izenpetzeko kontratupeko langile baten hartzea hautatzen balu kontratatze prozedura bukatzean,

ONARTU ditu Auzapezaren proposamen guziak.

ZEHAZTU DU kredituak aurreikusiak izanen direla kontu-aldian.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

11- 2024-40 DELIBEROA- LANPOSTUEN TAULAREN ALDATZEA (ANIMAZIO LAGUNTZAILEEN LAN ALORRA) – 4.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio denbora osoko animazio laguntzaile lanpostu iraunkor bat sortu zela 2020ko azaroaren 20ko erabakiaren bidez, batzordeetako animazio funtzioak betetzeko, webgunearen kudeatzeko eta kontseilarien laguntzeko proiektu kultural batzuetan, eta lanpostua betetzekoa dela geldialdi baten ondorioz.

Kandidaturak eta zerbitzuaren beharrak ikusirik, auzapezak proposatu du animazio laguntzaileen lan alorreko maila desberdinak elkartzea lanpostu horri.

Lanpostuen taula honelakoa izanen da:

Lanpostua	Dagozkion mailak	Aurrekontu -kopurua	Asteko lan denbora bana besteko	Kontratatzearen oinarria enplegatua kontratupekoa baldin bada
Animazio laguntzailea	Animazio laguntzaileen lan alorra	1	Denbora osoa	Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L. 332-8 2 artikulua

Lanpostu hau betetzen ahalko da:

- funtzionario bat hartuz Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikuluan finkatu printzipio orokorra aplikatuz zeinaren arabera, baimen berezia ukanez salbu, departamenduen, herriko etheen

eta haien administrazio-erakunde publikoen lanpostu zibil iraunkorrak funtzionarioek baitituzte betetzen,

- baimen berezi baten bidez, kontratupeko langile bat hartuz Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2 artikuluko xedapenak aplikatuz. Hauek kontratupeko langileak hartzeko parada ematen dute lanpostu iraunkorretarako funtzio motek edo zerbitzuaren beharrek justifikatzen dutelarik eta ez baldin bada funtzionariorik hartu ahal izan edo mugikortasunaren kariatara edo konkurtsoetako saridunen artean.

Lan kontratuak hiru urterako hitzartzen dira gehienez eta kontratua berritu daiteke sei urterako gehienez. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen baldin bada, erabaki berezi baten bidez egiten da mugarik gabeko eperako.

Kontratupeko langile bat hartzen balitz, lanpostua 367 eta 486 arteko indize gordinari dagokion ordainsaria eman ahal izanen zaio.

Beharrez, lansariaren barne izanen dira 2021/02/26an Herriko Kontseiluak teknika-laguntzaileen lan alorrari doakien funtzionarioentzat finkatu funtzioei dagozkien lan alorrerako aurreikusi primak eta ordainsariak.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

Herriko Kontseiluak,

ONARTU DU Auzapezaren proposamena:

ERABAKI du - lanpostu hori betetzen ahalko dela funtzionario edo kontratupeko langile bat hartuz,

- kontratupeko langile bat hartzen balitz, lanposturako 367 eta 486 arteko indize gordinari dagokion ordainsaria emanen zaiola.

BAIMENA eman dio jaun auzapezari atxikirik den lan kontratua izenpetzeko kontratupeko langile baten hartzea hautatzen balu kontratatze prozedura bukatzean,

ZEHAZTU DU kredituak aurreikusiak izanen direla kontu-aldian.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

12- 2024-41 DELIBEROA- A KATEGORIAKO LANPOSTUEN TAULAREN ALDATZEA – 4.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio lanpostuen taula onartu dela 2023ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez.

Dokumentu horretan zehaztua da idazkari nagusiaren denbora osoko lanpostu iraunkorra arduradun mailan direnek betetzen ahal dutela.

Gainera, zehaztu du:

- 2023ko urriaren 9ko prefetaren erabakiak Baigorriko Herriko Etxea 2 000 eta 3 499 herritar arteko herrien demografia sailean sailkatu duela,
- Herriko etxeko idazkarien lanbidea hobetzea helburu duen 2023ko abenduaren 30eko 2023-1380 legearen arabera, 2024ko urtarrilaren 1etik goiti, 3 500 biztanle baino guttiagoko herrietan, herriko etxeko idazkarien funtzioak bermatzeko, auzapezak langile bat izendatu du “herriko etxeko idazkari nagusi” lanposturako.

Horrela, lanpostuaren bilakaera, bermatu eginkizunak eta 2023ko abenduaren 30eko legea kontuan hartzeko, auzapezak proposatu du lanpostuen taula honela aldatzea:

- Alde batetik, “idazkari nagusi” izendapena “herriko etxeko idazkari nagusi” bilakatzea,
- Bestetik, lanpostu honi arduradun nagusiaren maila gehitzea.

Lanpostuen taula honelakoa izanen da:

Lanpostu iraunkorra	Dagozkion mailak	SAILA	Asteko lan denbora bana besteko	Lanpostu kopurua	Lanpostu betea			Lanpostu ez betea	
					Lanpostuaren sortze edo aldatze deliberoa	Oinarri juridikoa lanpostua kontratupeko langile batek betez geroz	Lanpostu kopurua eta sexua	Betetzekoa den kopurua ----- Lanpostu a noiztik den betegabea.	Arrazoiak
Herriko Etxeko idazkari nagusia	Arduraduna Arduradun nagusia	A	Denbora osoa	1	Erabakia 2012/09/10		1 emaztea		

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan,
Herriko Kontseiluak,

ZEHAZTU DU

kredituak aurreikusiak izanen direla kontu-aldian.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

- Baxenabarreko hTHP Antolaketa eta Garapen Iraunkorraren Proiektuari buruzko eztabaida eta onartzea

BAXENABARREKO HTHP ANTOLAKETA ETA GARAPEN IRAUNKORRAREN PROIEKTUARI BURUZKO EZTABAIDA ETA ONARTZEA - GIBELATUA

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

Osasun etxea ELGARREKIN ARTATU sozietateak okupatzeko alokatze kontratuaren izenpetzea 2024ko maiatzaren 2an.

GAI OROTARIK

!

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Pierre, *Betti*, jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoja jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna

.

Bilkuran hartu deliberoak 30etik 41era zenbakituak dira.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>